



DIRU SARRERAK

ANOTHER LIVE plataformaren bezeroek (saltzaileak zein erosleak) 18 urtetik gorakoek dira eta prest daude gure zerbitzuaren truke ordaintzeko, segurtasuna eta erabilera erraza eskainiz. Balioa ez da soilik bigarren eskuko produktuak saltzea edo erostea, baizik eta ekintza hori kausa sozial eta jasangarri batekin lortzea. Bezeroek balio erantsi hori positiboki baloratzen dute eta horrek leialtasun eta parte hartze aktiboagoa sortzen du.

Lehenik eta behin, diru-sarrera nagusia transakzio bakoitzetik aterako den %10eko komisio izango da. Hau bezeroak onartzeko prest dagoen kostu txikia da, kontuan hartuta plataformaren bidez erositako produktuek bidalketa doakoa dutela eta erosketak bakoitzak eragin sozial zuzena sortzen duela. Era berean, erabiltzaileek ulertzen dute komisio hori ezinbestekoa dela aplikazioa mantentzeko eta kasuen gardentasuna bermatzeko. Horrela, komisioa bidezkoa eta iraunkorra da, bai erabiltzaileentzat eta bai plataforma ekonomikoaren funtzionamendurako.

Bestalde, gure aplikazioaren beste diru-sarrera garrantzitsu bat Premium apartatua izango da. Zerbitzu honek 6,99 €-ko kuota hilekoa izango du, eta erabiltzaileek hainbat abantaila eksklusibo jaso ahalko dituzte, aplikazioaren esperientzia hobetuz eta erosketak zein salmentak errazago eta eraginkorrago bihurtuz. 6,99 €-ko prezioa merkatuan antzeko zerbitzuek duten tarte berean kokatzen da, eta gure helburua da prezio irisgarria eskaintzea, baina aldi berean aplikazioaren funtzionamendua bermatzea. Premium kuotak lagunduko du, besteak beste: aplikazioaren zerbitzariak eta mantenua ordaintzen, segurtasun-sistemak hobetzen, erabiltzaileen datuen babes-maila handitzen, etorkizuneko funtzio berriak garatzen eta enpresak dituen bestelako kostual estaltzeko.

Horrela, Premium bidez jasotzen den dirua ez da soilik irabazi hutsa, baizik eta zerbitzua hobetzeko eta erabiltzaile guztientzat esperientzia seguruago eta azkarrago bat eskaintzeko inbertsioa.



Premium zerbitzuan dauden abantailak hauek dira:

- Produktuen ikusgarritasun handiagoa: zure artikuluak lehenengo postuetan agertuko dira, salmenta aukerak nabarmen handituz.
- Bidalketa azkarragoa edo beheratutako kostuak (plataformak eskaintzen dituen promozioen arabera).
- Kalitate hobeagoa duten artikuluak hartzeko ahalmena: Premium ordaintzen duzunean, aukera daukazu produktu berezienak hartzeko.
- Komisioen beherapena: Premium erabiltzaileek plataforma-komisio txikiagoa ordainduko dute.
- Sarrera aurreratua deskontu: adibidez, aplikazioko sorteotan, kolaborazio berezietan edo marka jasangarrien eskaintzetan.

Premium aukeraren bidez, erabiltzaileek abantaila gehiago lortzen dituzte eta, aldi berean, aplikazioak diru-sarrera finko eta iraunkorra jasotzen du proiektua ekonomikoki mantentzeko eta zerbitzuaren kalitatea etengabe hobetzeko.

Laburbilduz, ANOTHER LIVE plataformaren diru-sarrerak anitzak izango dira, baina guztiek dute bere oinarrian erabiltzaileek ekintza solidario eta jasangarriak egiteko duten borondatea. Plataformak eskaintzen duen balioa (gardentasuna, eragin soziala eta arropa eskuragarria) nahikoa da bezeroak gure zerbitzuaren truke ordaintzeko prest egoteko, eta horrek proiektuaren bideragarritasuna bermatzen du.